

UPV/EHUraiko Ekipamendu Zientifikoaren eta Funts Bibliografikoen erosketa eta berritzea finantzatzeko laguntzen Deialdia 2016

Deialdiaren helburua:

Honako deialdi honen helburua da UPV/EHUren sail eta institutuetaiko ikertaldeek eta Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren (SGIker) ekipamendu zientifikoa eta funts bibliografikoak erostea.

Materiala abian diren ikerketa proiektuak garatzeko erabiliko da, honako helburu hauek betetzeko:

- Ekipamendu moderno eta eraginkorra eskuratzea.
- Oraingo ikerketa ildoetarako balio ez duelako edo, kasurik txarretan, deskatalogatuta egoteagatik zerbitzu teknikorik ez daukalako zaharkituta geratu den ekipamendua berritzea.

Modalitateak:

- A. Ekipamendu zientifiko berria erostea. Modalitate honetan, eska daitekeen gehinezko diru laguntza 60.000 eurokoa izango da. Talde honetan ez da sartzen ekipamendu informatiko arrunta (ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, inprimagailuak, eskanerrak, eta abar).
- B. Ekipa zientifiko zaharkituak berritzea eta beriziki deskatalogatuta dauden ekipoak eta gaur egun erosiz gero 20.000 euro baino gehiago balio izango luketenak. Modalitate honetan, eska daitekeen gehinezko diru laguntza 60.000 eurokoa izango da.
- C. Funts bibliografikoak edo datu baseak erostea, ikerketa proiektuak egiteko behar diren liburu multzo, bilduma edo datu baseak sail edo institutuen ohiko funtsekin ordaindu ezin direlako, arlo horretarako funts bibliografikoen batez besteko prezioa gainditzeko dutelako edo Bibliotekan ez daudelako. Inola ere ez da diru laguntzarik emango aldizkarietako harpidetzak egiteko. Gehienez 10.000 euroko diru laguntzak emango dira.

Modalitate guztietan, eskaera egiten duen ikertaldeak eskatutako ekipamendua erosteko finantziatorik baduela frogatu beharko du, gutxienez ekipamenduaren edo funts bibliografikoaren BEZ gabeko kostuaren %15.

Eskaerak aurkezteko epea:

2016eko apirilaren 8ra arte, egun hori barne.

IZAPIDEA	EPE MUGA	NOLA
Deialdian parte hartzeko borondate-adierazpena bidaltzea	Martxoaren 18a (hau barne)	e-maila bidaliz igz.deialdiak@ehu.eus ikertzaile nagusiaren izena adieraziz
Eskaera	Apirilaren 8a (hau barne)	Erregistro datarekin (beherago ikusi)

Eskaerak aurkeztea:

Eskaerak paperean aurkeztu behar dira UPV/EHUko Erregistro Orokorrean, Leioan, campusetako erregistroetan edo ikastegietako erregistroetan. Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako eran ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Dokumentazioa:

DOKUMENTUAK	MODALITATEAK		
	A	B	C
Memoria-eskaera	X	X	X
Ikertalde eskatzaileko ikertzaile nagusiari dagokion sailaren edo institutuaren baimena, edo SGIker zuzendaritza	X	X	X
Funtsak erabili ahal izateko baimena ikertaldeko kidea ez denean	X	X	X
Eskaintza edo proformako faktura	X	X	X
Ondare baxa egiteko baimena		X	
UPV/EHUko Bibliotekaren ziurtagiria (2.C oinarria)			X
Zinpeko adierazpena	X	X	X
Ikertzaile nagusiaren eta beste bi ikertzailearen curriculumak	X	X	X

Papereko eskaerarekin batera, formatu elektronikoa aurkeztuko dira, CD, DVD edo USB biltegragailu batean, honako dokumentu hauek:

- a) Memoria-eskaera. Artxi boaren izena: ” **Eskaera osoa.pdf** ”
- b) Ikertaldeko hiru kideren curriculum osoa (ikertzaile nagusiarena eta beste bi ikertzailearenak), inprimaki normalizatuaren arabera. Artxi boaren izena: **“CV-ikertzailearen deiturak.pdf”**
- c) Eskaintza edo proformako faktura. Artxi boaren izena:”**Aurrekontua.pdf**”